



# berdintasun kontsailua

## HERNANIKO KALE ETA PLAZETAN BERDINTASUNA?

Gure herriak kale eta plazaz beterik daude. Erreferentzia gisa erabiltzen ditugun neurrian, kale eta plaza hauen garrantzia ukaezina da; nolabait, "garrantzitsutzat jotzen ditugunen" isla baitira; eta sinbolikoki ere garrantzia hartzen dute. Kale eta plaza bati izena jartzerako orduan, irizpide jakin batzuk egon ohi dira; eta irizpide hauek jendarte ereduaren ondorioa izango dira; honen adibide garbia dugu esaterako, Frankismo garaian hainbat kaleri jarritako izenak. Helburu argia izan zuen honek: Frankoren erregimena goraiatzea. Denborarekin, hainbat kaleren izenak aldatu egin dira, ez baitatoz bat egungo jendartearen ereduarekin, ezta ideologiarekin ere. Kale izen hauek aldatzea, beraz, borondate politiko argiaren ondorio izan da.

Halaber, kaleak ere memoriaren gordailu dira. Teresa Del Valle antropologoak kale izendegia eta memoriaren garrantzia azpimarratzen ditu. Bere aburuz, *"memoria da gizarte batek garrantzitsu jotzen duena eta datozen belaunaldiei transmititu nahi diena; kale izenak, monumentuak eta artearen errepresentazioak hiri batean oso garrantzitsuak dira memoria sortzen dutelako eta adierazten dutelako gizarte batek garrantzitsu jotzen dituenak"*. Baina nortzuk eraikitzen dute memoria hau? Del Vallek memoria soziala eta ofizialaren arteko bereizketa egiten du: *"pertsonak eta kolektiboak gara hori eraikitzen dugunak, hori bai, administrazioak, botere publikoak, politikoak eta elizarenak dira, gero aukeraketa egiten dutenak, memoria ofiziala eraikiz"*. Beraz ondoriozta dezakegu, kale izendegiek bat egiten dutela memoria ofizialekin, baina ez beti memoria sozialarekin.

Ildo beretik, Mertxe Tranche historialariak kale izenak jartzeko orduan erabiltzen diren irizpideetan jartzen du arreta: *"mundua ikusteko dugun moduaren ondorio dira; zeintzuk goraiatzen ditugu? gerlariak, jarduera heroikoak izan dituzten norbanakoak... emakumeak historikoki ez dira alor horietan aritu; kontua beraz, irizpide horiek aldatzean datza"*.

Egia da historian zehar emakumeen lana jasotzean egon den hutsunea, baina gaur egun honek ez du halako garrantzirik, ezin baita horretan arazoitu kaleei emakume izenik ez jartzea. Halaber, garrantzitsua da herriko emakumeek herrian egin dituzten ekarpenak jaso, ezagutarazi eta ondorioz, euren presentzia egotea imaginario kolektibo horretan, oraindik orain ezkutatuak jarraitzen dutenak. Positiboa da, hauek ezkutalekutik atera eta dagokien lekua ematea; bai guretzat, baita ondorengo belaunaldientzat ere.

Izan ere, gure herrietako kale izendegiak begiratzen baditugu, argi ikusiko dugu: emakumeok ez gara existitzen, ez bada santu edota amabirjinen modura. Gizonen kasuan aldiz, kontua oso ezberdina da.

Afera honen harira, hainbat herritan ekimen ezberdinak jarri dira martxan:

- Irungo kale izendegian esaterako, bi emakume izen soilik agertzen ziren. Bertako Bilgune Feministak 6 izen berri proposatu zituen etorkizuneko kaleei jartzeko; herrian izandako emakume garrantzitsuenak eta emakumeen lanbide izandakoak goraiatzeko: Dolores Salis, Maritxu Anatol Aristegi, cerilleras, nodrizas, modistas eta estraperlistas. Proposamena Udal Plenotik pasa eta Dolores Salis-i merezitako errekonozimendua eman zitzaion, kale bati bere izena ipiniz. Bestalde, Irungo bi bideri ere "Gobaragin kalea" eta "Irule kalea" izena jarri zieten. Berriki, baita "Maritxu Anatol" eta "Pospologileak" kaleak ere.
- Arrastaten orain gutxi arte, 146 kale eta plazetatik bat berak ere ez zuen emakume izena. Intxorta 1937 Elkartearen ekimenez, Udal Plenoak onartu du "Maisu Arano" kaleari "Arano eta Garcia maisu-maistrak" izen mistoa jartzea. Elkartek azaldu du biek urte luzez lan egin zutela Biteriren Eskola laikoetan eta, horregatik, Felix Aranok errekonozimendua jaso eta kale bati bere izena jarri zitzaiola; Teresa Garciak ordea, ez du behar besteko errekonozimendurik jaso orain arte, nahiz lan handia egin zuela azpimarratu Elkarteko kideek.
- Berriobeitiko kale izendegia eredugarri dugu alor honetan; Nafarroako herri honetan kale gurutzeek emakumeen izenak bakarrik dituztelako: Nafarroako Margarita, Clara Campoamor, Maria Dominguez, Maria Curie, Riboberta Menchu omenduta daude, besteak beste.
- Donostian ere berriki, 1813an hiria berreraikitze lanetan aritutako donostiarrei omentzeko asmoz, Dora Salazar-en eskultura bat ipini dute Valle de Lertsundi plazan, Maialen Lujanbioren bertso batekin batera. Eskulturak emakume bat adreiluak eramaten irudikatzen du; hiriaren berreraikitzearen sinbolo bezala, garai hartan emakumeek hiriaren defentsan izan zuten balentria eta parte-hartzea azpimarratu zuen udal gobernuak.

Hernaniko herriari dagokionez, 80 kale eta plaza izen ditugu egun: horietatik 6k "emakume" edota femenino izena dute, denak elizarekin lotuak. Ez dago emakume konkretu bati erreferentzia egiten dion izenik:

- Agustindarren plaza. Agustindarren komentua bertan dagoelako.
- Arantzazu plaza. Gipuzkoako zaindariari eskainitako plaza.
- Ave Maria parkea. Bertan kokatzen den etxeak izen hori duelako jarri zitzaion izen hori parkeari.
- Madalena kalea. Izen honek gogora ekartzen du osasun arloko erakundeekin loturik eta erromesbideekin zerikusia zuen Santa Maria Magdalena izeneko ospitalea edo ongintza etxea. Lehengo eraikin zaharra bota ondoren, zaharren egoitza berria izen berarekin inauguratua izan zen.

- Santa Barbara bailara. Toponimiarekin zerikusia duen izena.
- Zikuñagako ama bailara. Toponimiarekin zerikusia duen izena, edo herri mailan horrela ezagutu delako: Hernaniko zaindariaren ermita (Zikuñagako ama) bertan zegoelako.

Gizonen izena daramaten kaleak, aldiz, 24 dira; horietako askok elizarekin lotura badute ere, denek izen eta abizen konketuak dituzte, beraz pertsonaia konketu bati egiten diote erreferentzia:

- Antsorena Anaien kalea. Hernaniko txistulari Joxe eta Isidro Antsorena anaiei eskainia.
- Aristizabal kalea. Nicolas de Aristizabal. XVIII. mendeko administrazioko goi mailako karguetan aritu zen Ameriketara eta Madrilera. Hernaniko alkate izendatu zuten.
- Biteri kalea (kultur etxeak ere izen bera). Pedro de Viteri y Arana filantropoa, arrasatearra. Gipuzkoan zenbait ikastetxe sortu zituen.
- Eduardo Chillida pasealekua. 2002ko Osoko Bilkuran Udalak erabaki zuen Eduardo Chillida Juantegi Herriko seme izendatzea. Donostian jaio arren lotura handia izan zuen Hernanirekin.
- Elias Querejeta plaza. Hernaniko Udalak 2013an erabaki zuen Txantxillako plazari Hernanin jaiotako zine zuzendari, gidoilari eta produktorearen izena jartzea.
- Elkano kalea (Aurretik kalearen izena P. Kardaberaz zen) Juan Sebastian Elkano getariarra, munduari buelta eman zion nabigatzailea.
- Felipe Sagarna "Zapa" kalea. Felipe zapataria bezala ezaguna bere lanbidea zela eta. 1980an etxera zihoala hil zuten.
- Gabriel Celaya plaza. Poeta hernaniarra hil ondoren jarri zen izena.
- Gartzia Goldaratz kalea. Jose García Goldaraz hernaniarra. Gaztetan poesia landu zuen euskaraz, gerora apezpiku izendatu zuten.
- Ibarrolaburu plaza. Javier Ibarrolaburu tolosarra Hernanin bizi izan zen. Hil ondoren dirua eman zuen familiak langile jendeari laguntzeko. Udalak eskertzeko plaza bat eskaini zion.
- Iturriaga kalea. (Institutuak ere izen bera). Agustin Pascual Iturriaga, apaiza ordenatu eta beste batzuekin batera eskola bat ireki zuen. Pedagogoa bikaina zen eta euskal literatura ere landu zuen.
- Izpizua kalea. Segundo Izpizua Bermeon jaio zen. Ameriketara, Perura, Ekuadorra eta Costa Rica-ra izan zen eta azken honetan *El Noticiero* egunkaria sortu zuen. Gero Bilbora itzuli zen hango egunkarietarako lan egitera.
- Jose Ramon Almarza "Atarrabiyo" parkea. Jaiotzez hernaniarra ez izan arren, oso ezaguna izan zen herrian: mendizale ezaguna eta festetan parte hartzen zuena.
- Jose Manuel Aristimuño "Pana" parkea. Tiroz hil zuten Jose Manuel Aristimuño ETA-ko kidea Gasteizen. 2008an "Parkea" izena jarri zitzaion Auzitegi Nazionalak "aginduta"

- Kardaberaz kalea. Agustin de Cardaveraz Hernanin jaio zen (Kardaberaz kaleko 25. etxean). 10 urterekin Donostiara joan zen bizitzera eta bertan hasi zen jasotzen lehen irakaspena Jesuiten ikastetxean; gero Iruñean eta Valladoliden ere ibili zen. Handik Euskal Herri osoa zeharkatu zuen predikatzen, ospe handiz, santutzat hartzen baitzuten. Horrez gain, euskal literatura landu zuen eta euskaraz ugari idatzi zuen. 1927an Udal Batzorde Iraunkorrek, aurreko izena aldatu eta Kardaberaz hartu zuen izena kaleak, bertan jaio baitzen jesuita ospetsua. Ondorioz, hasieran Kardaberaz kalea izena zuen kaleari Elkano kalea izena jarri zitzaion.
- Karmelo Labaka kalea (E.P.O.-k izen bera). Karmelo Labaka Errezola Albizturren jaio zen. Hernaniko parrokoa izan zen. Formakuntzarako zentro bat sortu zuen, (Escuela Profesional Obrera E.P.O) hernaniar ikasle gazteek kultura, erlijio aldetik eta lanerako prestakuntza egokia izan zezaten.
- Larramendi kalea. Manuel Garagorri eta Larramendi Andoainen jaio zen. Umetan Hernaniko eskolara joaten zenean amaren abizenagatik deitzen zioten. Jesusen konpainian sartu zen. Historiagile, Gipuzkoako Foruen apologista eta euskara eta euskal literaturaren bultzatzaile izan zen.
- Lizeaga kalea. II Guda Karlistan, Santiago menditik granada bat bota eta Ignacio Lizeaga kapitaina jo zuen eta eskuineko besoa galdu zuen. "Humiladero" deitzen zitzaion auzoari eta kapitainaren ohorea dela eta, Lizeaga izena jartzeko eskatu zitzaion Udalari, eta honek aho batez onartu zuen.
- Mañe y Flaquer plaza. Juan Mañe y Flaquer Tarragonan jaio zen, kazetaria zen eta Euskal Herrian barrena ibili zen, eta liburu bat ere idatzi zuen. Bertan geografia, historia, artea, folklorea, etnografia, literatura, ohitura eta erakundeekin zerikusia zuten hainbat alderdi aipatzen zituen, baita hizkuntza eta arrazaren kontuak ere.
- Orkolaga kalea. Juan Miguel de Orcolaga Hernanin jaio zen, baina haurra zela Argentinara joan zen, eta han apaizgaitegian sartu zen. Osasun arazoak medio, hona itzuli eta Gasteizeko eta ondoren Beizamako apaiztegian aritu zen. Behaketa meteorologikoak egiten zituen, ekaitza iragarpen publikoak eta baita neurketa aparatuak ideiatu eta egin ere.
- Perkazitegi kalea. Gonzalo de Percaiztegui hernaniarrak artoa Gipuzkoara ekarri zuen lehena izan omen zen. Hori dela eta, kale bati bere izena ematea erabaki zuen Udal Batzorde Iraunkorrek (egun Atzieta kalea dena). Ondoren 1988an erabaki hori aldatu eta Udalbatzak eta egun den kaleari eman zion Perkaiztegi izena.
- Txirrita kalea. Jose Manuel Lujanbio "Txirrita" bertsolariaren omenez. Hernanin jaio zen, Ereñozu auzoko Latxe-zar baserrian.
- Urbieta kalea. Juan de Urbieta Hernanin jaio zen. Armagizona izan zen, Santiago orden militarreko zaldun izendatu zuten eta kapitain maila eskuratu.
- Victor Hugo kalea. Victor Hugo Frantzian jaio zen. Madrilen egin zituen ikasketak. Frantziak penintsula okupatzean, tropekin Hernanin gelditu eta txundituta geratu zen izenarekin. Hernani izena jarri zion geroago bere lan bati. Frantses erromantikoen arteko pertsonarik ospetsuena izan zen.

Hernanik aldiz, garai batean izan zuen "Andrekale" izeneko kale bat (egun Kardaberaz kalea dena). Udal Artxiboan aurkitutako agirietan jartzen duenez, 1896an Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei gomendioa egin zien erdara hutsean zeuden kale izenen errotuluak euskaraz ere jartzeko. Horren ondorioz, Hernaniko Udalak bi izen ofizial jarri zizkion kale honi: *Andre kalia* euskaraz eta *Calle Urumea* gaztelaniaz. 1902. urtean badirudi "Urumea" izena jartzea adostu zela; eta azkenik, 1927an "Padre Cardaveraz" izena ematen zitzaion kaleari eta 1988an izena euskaratu egin zen (egungo Kardaberaz).

Baina zer dela eta "Andrekale" izena? Hainbat teoria daude honen inguruan.

Esaterako, Udal Artxiboko teknikariak, Jesus Mari Gomez-ek, hauxe idatz izuen honen inguruan, 2008an: *"Consultada la documentación en el Archivo Municipal conservada, deducimos que ANDREKALEA (ANDRE-KALEA) era una denominación popular extendida entre la población por las singularidades socio-culturales que se daban en la misma (parece ser, así transmitido y recogido oralmente entre la población, era la calle en que llevaban a cabo su "vida social" las mujeres residentes del cuerpo de la villa"*.

Hernaniko 2004ko urtekarian Nekane Idarreta eta Estitxu Eizagirrek idatzitako artikulu batean hainbat teoria daudela azaltzen dute:

- Lehen teoria batek dio Kale Nagusian kokatuta zeudela denda dotoreak eta apain jantzitako jendea bertan izaten zela. Aldiz, Andrekalen emakumeek lana egiten zuten. Halaber azaltzen dute, Hernaniren egiturari bi atariko etxeak direla nagusi eta horrek laguntzen duela herrian gune "publikoa" eta "pribatua" bereizita zeudela dioten teoria hau. Gaineratzen dute, garai batean emakumeek ohitura handia zutela aulkiak etxetik jaitsi eta kalean eserita lanak eginez hizketan aritzeko. Baita ere emakumeak kartetan aritzen zirela Andrekalen, horregatik Kaxkoko jaiak antolatzean, ohitura hori berreskuratu dute, eta karta jokoa izaten da bertan.
- Bigarren teoria batek dioenez, Andrekalen arropa garbitzaile asko bizi ziren. Aberats jendea etortzen omen zen arropa garbitzaileei beren jantziak uztera, Leokako labaderoan harrikoa egin zezaten.
- Azken teoria baten arabera, baliteke generoaren arabera kaleen banaketa bat egotea; hau da, Kale Nagusia gizonezkoena, Andrekale emakumeena eta Atzietas animaliena.

Dokumentu idatzietan ez da izenaren arrazoirik topatu izan eta beraz, ahozko transmisioa besterik ez zaigu geratzen, baina denborak aurrera egin ahala, testigantza hauek ere gero eta urriagoak dira.

Dena den, kale izenaren arrazoia bat ala bestea izan, argi dago, garaiko jendartearen aztarna bizia dela. Arestian aipatutako memoria sozial horren barruan dago; horren adierazle da egun pertsona heldu askok kaleari Andrekale deitzen jarraitzen diotela, kale hartan emakumeek izan zuten presentziaren lekuko; izan kartetan aritzen zirelako, lan egiten zutelako edo dena delakoagatik. Baina ezin da

ukatu, izenak berak, emakumeon historia ezagutu eta azaleratzeko bide ematen duela, emakumeek izan zuten pisuaren aitortza egiten du eta gure herriko espazio batean behintzat biztanleen erdia garen emakumeoi leku bat ematen digu; gure ingurura begiratzen jarriz gero, emakumeok existitu ere ez garela baitirudi eta.

Hau guztia azaldu ondoren, Berdintasun Kontseiluak, "Andrekale" izenaren berreskuratzea ezinbestekotzat jotzen du, eta Hernaniko Udalarari zera eskatu nahi diogu:

- "Andrekaleren" gaia azter dezala
- Historia ofizialean emakumeek izan duten hutsunea onartu dezala
- Emakumeen kolektiboa errekonozitu dezala
- Emakumeek Hernaniko herrian izan duten presentzia aitortu eta hauei merezitako aitortza egin diezaiotela
- Emakumeak ikusarazteko neurriak hartu ditzala
- Egungo "Kardaberaz" kaleari "Andrekale" izena jar diezaiola

Laburbilduz bi arrazoi nagusirengatik:

1. "Andrekale izena" "ofizialki" eta sozialki emana zegoelako; eta egun memoria soziala ere mantentzen delako herritarren artean.
2. "Andrekalek" nahiz emakume konkretu bat ez goraiatu, emakumeen kolektiboa errekonozitzen duelako, nolabait, orain arte egindako injustiziarekin bukatzeko bidea jartzen duelako; historia ofizialean emakumeok eta sektore marjinalak ez baitugu lekurik eduki, eta beraz, ezin gara "garrantzi historikoetan" oinarritu.

Aipatu moduan, Hernaniko emakumeak ezkutalekutik atera eta merezi duten errekonozimendua eta aitortzarako lehen pausu garrantzitsua litzateke hau, hernaniarron historia eta memoria osatzeko bidean urratsak emateko. Jendartearen memoria sozialean jada badagoen arren, memoria ofizialean ere gure lekua izan behar baitugu emakumeok, eta zer hobeto "Andrekale" izena berreskuratzea baino. Borondate politikoaren esku dago!

Hernanin, 2014ko maiatzean

Hernaniko Berdintasun Kontseilua